- .Tradiziozko poemak erabiltzearen garrantzia azpimarratzen da, hizkuntza bakoitzak garatzen duena. Egitura hauek gordetzen dute, hizkuntza bakoitzaren sena, eta funtzio nagusi batzuk betetzen dituzte: hala nola hizkuntzaren lorpena zein haurren hazkunderaren lagungarria gisa.
- Poesiaren bidez haurrak barneratu egiten du oin erritmikoa; konpas bakoitzari silaba bat eta bokal bat erasten dio ahapaldi bakoitzaren errimak laguntzen dio bere adierazpena finkatzen hizkuntz ekoizpen propioak gauzatzen dituen bitartean.
- .Haurra jaio baino lehen, entzumena garatuta dauka, jaiotzean munduaren kontaktua entzumenaren bidez etortzen zaio, eta inguruko mundu hori ezagutzeko grina.
- . Entzumenezko espazioak sortu behar dira eskola barruan: isiltasunean murgildu eta entzumena eta hausnarketa garatzuz.
- .Haur kanta, haurrak ikasteko bide bat. Poesia erabili hainbat gauza ikasteko: psikomotrizitatearen garapena, oinarriko nozioak ikasi (zenbakiak...)
- .Sintaxia finkatzen laguntzen dute. Oin erritmiko bat ikasi, errepikatzen dute...
- .Haur kanta gauza askotarako erabili ohi du gizarteak: jateko, minak sendatzeko, batez ere bihotzeko mina..., haurra zaintzen dute...
- .Haurra lasaitzeko eta baita ere gurasoa lasaitzeko balio dute seaska kanteak
- .Eskolak landu behar du ahozko poesia, oso garrantzitsua. Ez da etxeko kontu bat, poesiaren bidez hizkuntzaren ezaugarriak barneratu, eta hau landu behar da, ahoz eta gero idatziz.

EREDU

Ibon Egaña

POETIKOAK:

- Poesiak Haur literaturaren barruan bazterreko lekua du, eskolan, tarte gutxi eskaini izan zaio eta eskaintzen zaio jarraikortasunik gabe normalki
- Zailagoa dirudi poesia helburu kurrikular zehatzak lortzeko tresnatzat erabiltzea, edo poemak eta eduki kurrikularren artean lotura garbirik egitea.
- Euskal literaturaren kasuan, bertsolaritzak bete izan du maiz poesiaren lekua. Gure ustez, horrek ekarriko luke euskaldunak ez diren tradizioak ez ezagutzea, ahozko euskal tradizioko beste generoak (baladak, koplak zaharrak...) ahanzteak, besteak beste...
- Azken bi hamarkadetan euskal haur poesiak hainbat iturritatik edan du: bertsolaritzatik, ahozko tradiziotik, eta baita kanpoko eredu poetikoen tradiziotik ere (haikuak, Limerick egitura). Azken urteotan, hainbat antologia argitaratu dira, halaber, haur poesiaren oraingo egoeraren argazkia eskaintzen dutenak.

PROPOSAMENAK:

Ahazkotik idatzirako zubia eraikiz: ahozko tradizioko eta poesia idatziaren arteko loturak

•Ahozkotatasunarekin estuki lotuta agertzen da haur poesia, beraz, eta baita musikarekin eta beste arte-diziplina zenbaitekin ere. Diziplinartekotasuna horri eustea izan daiteke bide bat poesiak eskolan lekua izaten jarrai dezan.

•Musikatutako poesia baliabide egokia da haur eta gaztetxoak poesiara hurbildu nahi dituen irakaslearentzat eta euskal poesiaren kasuan, adibideak erruz topa litezke.

•Poesia eta arte plastikoaren arteko lotura ere hasieratik landu daitekeen bidea da

•Errezitaldi txikiak, ikasle nagusiak txikiagoen geletara eraman, bertan egin ditzaten irakurketa-saio laburrak. Irakurketa ozenean trebatzeko eta irakurketa ñabartu eta modulatzeko, bestalde, tresna paregabea dira errezitaldi laburrok, baita bigarren hezkuntzan ere.

•Poesia eta ikus-entzunezkoen arteko loturak baliatu, poesia ikasleengana hurbiltzeko. Publizitatea, telebistako iragarkiak, film laburrak eta mutuak edo ziberpoesia, esaterako, abiapuntutzat har litezke poesia idatzira jauzia egiteko.

OHARRAK

Poesia idatzia eskolan sartzean **arazo** bihurtzen da. Arrazoiak:

.Poesiaren inguruan dagoen mitifikazioa: poesia, mailu bat da, gauza "extralurtar" bat da...;

.Zertarako erabili poesia, zer irakatsi behar dugu...zaila hau definitzea, erabilgarritasun urria du;

.Poemak zein adin tarterako definitzea oso zaila...

.

Abantailak:

.Testu laburrak dira, gelan erabilgarriak...

.Komunikazio gaitasunak areagotzen ditu

.Errealitate desberdinak irudikatzeko, sentitzeko bidea eman

.Hizkuntzaren erabilera beste modu batean egiteko

.Emozioekin lotuago dagoen jakintza bat da

.

Ohar batzuk poesiaren inguruan

- .Genero gisa baztertuenetakoa da
- .Genero berankorra da, euskaraz batez ere. Argitalpen kopuru txikia
- .Euskal poesiaren inguruan, badaude antologia batzuk: zaldiko maldiko, txori txikia...
- Poesia eta bertsolaritza
- .Bertsolaritzak poesiaren lekua hartu, abantaila batzuk eskaintzen dituelako: tradizio handiko generoa da, musikarekin lotuta dago, memorizatzeko erraza, sormen ariketak egiteko aproposa
- .Bertsolaritzak euskal beste generoak (klopak, baladak) baztertzen ditu: desabantaila
- .Haur hezkuntza ondoren eten bat sortzen da eskolan poesiaren inguruan, bere lekua galtzen duelarik.
- .Hala ere, helmuga ez da poesia idatzia menperatzea, etengabe bueltatu behar da ahozko poesiara.
- .Tradiziozko poema generoak zubi bat izan daitezke ahozko eta idatzizko poesia eredu artean

Hainbat proposamen

- .Tradiziozko poesia oso garrantzitsua euskal haur poesian (jiran-biran, auskalo!)
- .Poema batzuk asmakizunaren bidetik galderak egitea eta jakinmina sortzea jarraitzeko bide bat da. Poesia idatzirantz eraman dezake
- .Ozen irakurtzea garrantzitsua, errezitaldiak egin daitezke, irratsaioetan sartu...helburua ez edozer irakurtzea
- .Erritualizatu, jolasekin lotu: eskolan praktika moduan. jolas ezberdinak egin daitezke
- .Dramatizazioa da beste modu bat poesia liburuetatik ateratzeko: antzerkia (aizak eta aizan elkarrekin dantzan)
- .Musikarekiko lotura
- .Adierazpen plastikoarekiko lotura: horma irudiak egitea gai jakin baten inguruan, emozioak adierazteko irudiak egin
- .

Poesia eta narrazioa

- .Tradiziozko poesia narrazioaren bidez: Amilami, Atxiki sekretua
- .Bereziki sortutako poesiak: printzesa begi-zulo
- .Bitartekariaren parte hartze bat behar liburu hauek haurrekin lantzeko
- .Sentipenak, emozioak landu; gai jakin baten inguruan, naiz eta beti emozioetatik abiatu
- .

Gazteak eta poesia

- .Zailago gustatzea haur bati baino. Jakintza batzuk ikasi behar dituzte: eragozpena
- .Gazteengana poesia gerturatzeko: hurbil dituzten gaiei buruzko poemak landu, poesia soziala
- .Teknologia berriak: ondo erabiltzen jakin ezker erabilgarriak: youtube formatua, publizitatea...aukera eman poesiara iristeko. Bitartekari bat izan behar dute, ez helburu bat.
- ondorioak
- .Poesia liburuetatik atera
- .Garrantzitsu ahozkotasanarekin duen lotura
- .Sormena erabiltzea poesia erabiltzeko bitartekari bezala
- .Emozio estetiko lortzea da bilatu behar dena

IBILERA LITERARIOAK-1

Gurutze Aldabaldetrek

- Irakasleen formazioa eta zaletasuna azpimarratzen da: afizioz edota ofizioz
- Txikitako irakurketen oroimenetik hasi eta lotura afektibora heltzeko bidea eraikiz, liburu kateak osatzera iritsi.
- Ibilera hauen eraiketan norabide desberdinak har ditzake, garrantzitsua da helburua(k) garbi zehaztea, argi izatea zergatik jarri ditugun ibilbide horretan, zer lortu nahi den
- ADIBIDEAK
 - _Gai baten trataera aztertu, adinaren arabera: heriotza, beldurra, bidaia, maitasuna...
 - _Pertsonaia literarioen inguruan: idazle desberdinenengan, garai desberdinetan...estereotipoak identifikatu eta interpretapenak alderatu
 - _Egiturarekin eta barne antolaketarekin lotutakoak; antolaketa desberdinak ezagutu, ikusmirak ireki

Ibilera literarioak I (Gurutze Aldabaldetrek)

- .Ikusaraztea ibilera literarioen bidez irakurtzaletasuna suspertzea badagoela
- .Eskolak lantzen duen bideari beste batzuk gehitu behar zaizkio; hau da horietako bat.
- .Bi ardatz nagusi:
 - _Irakaslea/bitartekaria
 - _Ibilbide literarioak
- .Irakasleen formazio literarioa:
 - _Irakasleen Eskoletako plangintzetan hutsune nabarmenak daude: ikasleak 3. mailan iritsi HGLra. Honi buruz, ikasleek oso ezagutza kaxkarra dute; urruneko eta aspaldiko bidea. Eta ikasleen jarrera irakurketaren kontrakoa.

Nola zaletuko dituzte haurrak HGL apenas ezagutzen badituzte irakasle izango direnak?

- Sustatu beharreko lehen irakurtzaletasuna bitartekari lanean dabilen irakaslearena da.
- Afizioz ez bada, ofizioz izan behar dute irakurle
- Irakaslea: eredu, animatzaile/motibatzaile eta bitartekari
- Bitartekaritza: testuak erabiltzen dira.

Geroko irakasleak trebatu

- .Testu literarioak: hautapena eta hausnarketa kritikoa
- .Erakargarritasuna: liburuak eskaintzerakoan erakargarri izan behar dute ikasleentzat
- .Egokitasuna: Garapen orokorra, linguistikoa, literarioa kontutan.
- ._Mailaketa:
 - .Eskailera bat eraiki behar da, behetik gorantz, pausoz pauso, bitartekoak erabiliz, irizpide bibliografikoak eta didaktikoak kateatzeko, bitarteko egokiak erabiliz

Ibilbide literarioak gaitasun literarioaren eraikuntzan

1. Ibilbide literarioaren berreraiketa, norberarena, pertsonala.
Garrantzitsua da haurtzarora joatea, txikitako oroitzapenak gogoratzea; abiapuntuan, gelditu eta irakurketaren historia pertsonala berrikusi eta kontatzea. Bizi-esperezienekin lotuta doaz liburuak.
Norberak bere irakurketaren historia osatuz gero, hobeto uler dezake ikasleek izan dezaketan ibilbidea.
2. Irakurlearen bidaia: irakurle bihurtzen direnean, bidaia literarioa egin behar dute

3. Irakasleak liburuaren begirada luzatzen duenean...

.Afektiboki hurbilago daude literaturatik, baina akademikoki gabeziak erakusten dituzte hastapenetik.

.Irakurketa/kontaktetaren txokoa eta unea: egunero tartea eskaini testuen irakurketari. Hautatu behar izanez gero, liburu artean

.Liburuaren tapakia: liburuaren eskaparatea eskaini.

."Liburutegi ibiltaria": ikasleek etxera eraman ditzakete liburuak, trukatu, eraman eta ekarri...

.Liburutegi baten aurrean jartzen dira; nahiz ez liburutegi osoa izan.

.Auzoko/herriko liburutegia ezagutzearen beharra:

.Bisitaldiak egin beharra

.Liburuzain eta arduradunen formazioa ezagutu behar dute: jo dezakete harengana aholku eta gomendio eske?

.Liburuak hizpide bihurtzen dira halako batean

Lehen balorazioak:

.Ezerezaren gainean ezin da irizpiderik finkatu.

.Irakurri ditugunean has gaitezke irizpideak eraikitzen eta liburuak baloratzen.

.Bidaia hori amaitzen denean, beste bat hasten da.

.Bakarkako irakurketa egin ondoren, bestelako irakurketak egin.

.Irakasleak liburuaren begirada luzatzen duenean

.Testuak berreskuratu

.Entusiasmoa konpartitu

.Esanahiaren eraikuntza konpartitu

.Liburuaren arteko loturak konpartitu

.Ibilerek ze norabide duten jakitea komenigarria da, kateatzea osatu behar dugunean: zer lortu nahi dugu?

.Irakaslearen figura indartzen da hemen. Hala ere, gidaria baino ez da. Ez du inposatu, behartu behar.

.Ibilera batean, loturak askotarikoak izan daitezke (ezarritako helburuaren arabera, lehenengo galbahea eginda) eta irizpide desberdinak planteatu:

.Egituraren aldetiko loturak: amaiera alternatiboak, amaiera irekiak...

.Egileen araberako kateatzeak:

.Gaiaren araberako kateatzeak: beldurra, heriotza,

.Mailakatzearen arabera

.Pertsonaia literarioak: idazle/garai desberdinetan nola agertu diren: konparaketak ezarri.

.Idazle baten ibilera: geldiune esanguratsuenak

.Ibilera hori ez da sekula bukatzen.

.LITERATURAREN IRAKASKUNTZA LIBURU DIGITALEN GARAIAN

Mari Jose Olaziregi

- Irakurlearen profila aldatu da: voyer izatetik eragile izatera pasa da, neurri handian teknologia berriei esker.
- Nola irakurzaletu gure ikasleak teknologia berrien garaiotan? Internautaz beteriko gela batean zein baliabide ditugu literatura eta irakurketaren plazer estetikoak ikasleei helarazteko?
- Zein estrategia baliatu behar ditu XXI .mendeko literatura irakasleak? Zein onura/kalte ekarri dizkio literaturaren irakaskuntzari teknologia berrien garai honek?
- Planifikazio eta baliabide eguneratzearen beharra
- Gaur eguneko gazteak eta baliabide informatikoen erabilera: euskara sarean
- Euskarri elektronikoak liburua ordezkatzeko al du?
- Irakurle ohiturak espainian
- Adibide praktikoa: Gai baten inguruko irakurketak

.OHARRAK

.Teknologia berriek nola eragiten duten

- .Sareak dauzkan abantailak:
- .Behin eta berriz irakurtzera bideratzen gaitu
- .Zatika, epeka irakurtzen dugu
-
- .Voyeur bihurtu gara:
- .Literatur kritikan: irakurketa elkarrizketa da, batez ere testuarekin.
- .Desirak bideratzen du irakurketa; espero ez genuen lekuan amaitzen dugu. Literatura ere bidaia bat bidali da.
- .Esparru digitalak erabat aldatu du irakaskuntza, irakaslearen presentziaz "askatu" du ikaslea
- .Errealitate hori eskolan eta liburutegian baliatu daiteke.
- .Irakaslearen rola aldatu da: ikasleak bilatzaile bihurtu behar ditu.
- .Lan bikoitza irakasleak
- .Internet baliatu arren, irakurketaren garrantziaz ohartarazten jarraitu
- .Edukietan osorik oinarritutako eskolak alboratu
- .Literaturaren izaera konparatua aditzera emateko modurik egokiena da internet.
- .Loturak (link-ak) dira irakurketaren akuilu.
- .Ibilbide tematikoak egitea guk geure ipuinak kontatzea da.
- .Irakurketa kolektiboa egin.
- .Irakaslearen itzalak gelatik kanpo ere luzatu behar du. Era berean, irakurketak eskolaren esparru zurrunik atera behar du.
-
- .Testu inprimatuaren ikuspegia vs media ikuspegia
- .Gaurko gazteek, internet nahiago telebista baino
- .Hizkuntza gutxituek, eta euskarak, interneten egon behar dute biziraupenerako
- .Irakurzaleenak 19-34 urte bitartekoak: dira internet gehien erabiltzen dutenak
- .Erakargarritasuna eskolatik kanpo geratzen den horretan, sarean dago ikasleentzat
- .Hainbat baliabide daude sarean
- .Sarea era baliabide dezakegu, onurak ekarriko dizkigu.

2. atala: ideologiaren irakurketa.

.Babar elefantea:

.Azken urteetan, oso kuestionatua, Tintinekin batera: ikuspegi kolonialista duelako.

.Nola irudikatzen da ideologia literaturan? (Inocencia y neocolonialismo. Un caso de dominio ideológico en la li infantil)

.Zer da ideologia?

.Balio, sinbolo, mito irudi...-en batura.

.Errepresentazioaren azterketa: nola irudikatzen da bestea? Nola irudikatzen dira talde zenbait?

.Errepresentazio-moduak aztertu

.Botere-desorekak dauden taldeen arteko edozein gatazka aztertzeko balio du kritika postkolonialak

.E. Said: "Orientalismo", nola ikusi dugun mendebaldetik "Ekialdea": ze paternalismorekin irudikatu ditugun ekialdetarrak

.Auzitan jarri da kanon tradizionala: hala helduen literaturan nola HGLn.

.Gaia filmen bidez landuko dugu ikasgelan, adibidez.

.Aladdin (1992, Disney)

.Pertsonaia nagusiek ez dute arraza-marka arabiarrik, onak dielako.

.Hainbat adibide filmetan, prentsan... dagoen irudikapenaz.

.Nola irudikatzen da "Bestea"?

. "Bestea" ispilua da, nor garen, zer garen definitzen laguntzen diguna. Harekin konparatuz irudikatzen dugu gure burua.

.Amin Maaluf: identitateak ez dira bakarrak, egonkorak. Identitate anitzak dituztenak ez dira ongi onartuak.

.Liburuaren azterketa ideologikoa:

.Ilustrazioak

.Hizkera

.Denbora-espazioa

.Paternalismorik badagoen...

. B. Atxaga: hibridotasuna.

.Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian.

.Tematika: A. Epaltza, K. Uribe, Txiliku... Emigrazioa, diaspora lantzen duten liburuak. Interesgarria ideologiari dagokionez aztertzeko.

.Euskara eta ingelesaren arteko hibridazioa. Zer esan nahi du horrek? Tarteko esparru batean dago.

. "Lur zabaletan" (A. Epaltza):

.Taldetan jarri: liburuak irakurri, diaspora zer den aurkeztu, interneten dauden baliabideak erabili

.Nola irudikatu diren euskaldunak, nola Euskal Herria eta nazioa.

.Zeharlerroa immigrazioa lantzeko: migrazioaren subjektua euskaldunak izanik.

.Memoria historikoa: *Behi euskaldun baten memoriak*

.Intertestualitatea, hizkuntza-hibridotasuna, autobiografia...

.Bambulo: hizkera-hibridotasuna (inuit-euskara)

.Ideologia aztertuz gero:

.Itsaslabarraeko etxea, Inesaren balada-rekin batera: itsasoaren gaia lantzen duten liburuak

.Ipuin tradizionalen bertsio postmodernoak:

.Shrek: estereotipoen berrirakurketak (oso aztertuta dago; interneten baliabide asko)

.Igerabide, M. Landa, Amilami...

.Berridazketekin dossier bat egin, estereotipoak nola iraultzen eta berrirakurtzen diren ikusteko.

Gurutze Aldabaldetrek

•Ibilera literario baten eraiketa nola antolatu: adibide zehatz bat, Ahatetxo itsusia abiapuntu,
•Bertan kontatzen den istoriotik abiatuko gara eta horretarako bi hari nagusi hartuko ditugu:

-1-H. C. ANDERSEN:

•.Datu biografikoak - obra: zertzelada nagusiak

•Centro Virtual Cervantes: Andersen. Un viaje por España. (De Vitoria a Irún)

• BEHINOLA aldizkarian 24. Seve Callejaren: "Odensera gutuna (Hans Christian Andersen-en ipuinetatik bi mendetara).

-2.-Ipuinaren mezuari heldu eta hainbat libururen aipamena egingo dugu. Nortasunaren, identitatearen ingurukoak dira guztiak, bazterketak, zalantzak, bidaiari inizatikoak biltzen dituzten lanak dira.

OHARRAK:

.Ibilera literario baten eraiketa

.Hauetako liburu batzuk kateatzean duten lekuagatik agertuko dira; ez halabarrez kalitateko obrak direlako.

.Abiapuntua: H.C. Andersen: Ahatetxo itsusia: iruditeria kolektiboan dagoen istorioa

.Haurren begiradatik egindako irudikapena: eskolatik eta etxetik ezaguna zaien ipuina eta irudikapena

.Argitalpen mota asko daude: hala liburuetan nola marrazki bizidunetan.

.Ipuin klasikoak, kalitatekoak direnez, erakargarriak eta eskuragarriak dira

.Askotan istorioa desitxuratuta heltzen da: alde zuzenetik irakurketa eta galbahea egin beharra

.Irudikapen bisualetan Disney-rena nagusitu da

.Baina bestelako irudikapenak ere badira:

.2004an egindako argitalpen berritua, XXI. Mendean egindako berrirakurketak (OEPLI)

.Merkatuan dagoena, etxeko zirkuituetan ere mugitzen dena:

.HH: Urtxintza (5 urte):

.2 testu mota: istorioa garatuagoa; testu laburragoa, ilustrazioarekin batera

.Egitura erabat klasikoa: gatazka, tentsioak, ihesa, arazoaren konponketa eta amaiera (zoriontsua). Bat egiten du adin horretako haurrek jaso ditzaketen narrazioen egitura eta nolakotasunarekin.

.Pasarte deskriptiboak erabat desagertu dira jatorrizko bertsiotik.

.Jatorrizkoan baino gogorrago baztertzen du amak ahatetxoa

.Gaiak: identitatea, bidaiari inizatikoa, autoestimua, desberdintasunaren onarpena

.Betiko ipuinak (LH):

.Jatorrizko deskripzioak berreskuratu eta egokitu egin dira adinaren arabera,

.*Erraldoia eta txoriak* (G. Biondi eta E. Dautremer, Tarttalo)

.Itxura goxoa, erakargarria haur txikiarentzat, baina istorioa gogorra da

.Tipografia aldakorra, moldatu edukiaren arabera

.Ihesa: gizakien iseketatik ihes egin

.Erraldoiaren irudikapenaren estereotipoetatik kanpo: pertsonaia goxoa, ez-beldurgarria...

.Zein da (eman beharreko) mezua: ihesa beharrezkoa da ala bertan konpondu behar dira gatazkek?

.Liburuaren mezua: bazterketa, ihesa, eta zoriona berezkoa ez den espazio batean.

Elefante txori bihotza (M. Landa) eta *Magalik badaki* (P. Zubizarreta)

-6 urtetik aurrerako haurrentzat sailkatua. Arazoa: zein adinetako haurrentzat da egokia?

-Lehen ataleko keinu guztiak helduagoentzat dira (keinu ironikoak)

-Desberdina dena onartua izan dadin heroi bihurtzen da amaieran: beharrezkoa da amaiera heroikoa adin horretatik aurrera?

Eta zer? Bilduma (8 urtetik aurrera)

-Helburu hezitzailea dute, eta helburu hori betetzen dute

-Galbahea pasa beharra

-Planteamendua aldatu: desberdintasuna onartu beharra, "ez da ezer gertatzen"

Paularen seigarren atzamarra, Katixa Agirre (10 urtetik aurrera)

-Kapituluetan banatuta (aurrekoak ez bezala)

-Koloretako ilustrazioak desagertu eta horiek espazio txikiagoa hartzen dute

-Adin-tarte horretan gustuko izan ohi dituzten liburuen ezaugarriak ez dago

Egiaren jokoa (Annika Thor), nerabe/gaztetxoentzat

-Desberdintasun fisikoak, ezintasunak alboratu

-Laguntasunaren garrantzia: besteen arabera harremanetan doa identitatea eraikitzen

-Narrazioa bi planotan banatua (aurrekoak ez bezala): egunerokoaren zatia eta narrazioa

Felipe Juaristi (F. Juaristi), nerabeentzat:

-Lidergoaren auzia eta besteen onarpena behar izatea

-Nerabeen iritziak kontuan hartuta, agian ez da beraiei iritsiko zaien eleberria.

Ihes betea (A. Lertxundi)

-Ihesa

-Nortasun eta identitate berri bat onartu beharra

-Bidaia inizatikoa

-Nortasunak ekarritako gatazkak ez dira gai nagusia, abenturazko nobela bihurtzen da.

-Ihesa fisiko bihurtzen da, ez nortasun-gatazkaren ingurukoa.

DONOSTIAKO HAUR LIBURUTEGIA

HAUR LIBURUAREN DOKUMENTAZIOGUNEA, HEZKUNTZARI BEGIRA

Elena Oregi Bazterrika

-Haur liburuen fondo modernoa (sarrera librekoa)

-Fondo gordea eta haur literatura

- Liburutegiaren Dokumentaziogunea

•Zerbitzuaren ezaugarriak, irakurzaletasuna sustatzeko, hezkuntza komunitaterako ezinbesteko zerbitzua bilakatzen dutenak:

-Fondo zabala eta hainbat hizkuntzatan, euskaraz bereziki ondo osatuta

-Funtsak eta zerbitzuak haur hezkuntzarako: Haurtxoteka, txiki-txikitatik irakurtzeko zaletasuna pizteko apustu aitzindaria

-Ume, guraso eta irakasleei zuzendutako jarduerak

Haur Liburuaren Dokumentaziogunea, Euskal Herriko profesionalen zerbitzura

-Dokumentazioguneko aretoan haur literaturan eta haur liburutegietan espezializaturiko fondoa biltzen da. Asun Balzola Dohaintza tarte. Fondo horiek ezinbestekoak dira ikerlariarentzat, berezia den dokumentazioaz gain, haur literaturako obrak zuzenean azter ditzakeelako.

OHARRAK:

.Nola izan daitezke bidelagun irakurketa sustatze-lanean?

1.- Haur liburuen erabateko eskaintza

.Zerbitzu berriak: haurtxoteka eta dokumentaziogunea

.Aldizkariak, liburuak

.Fondo zabala eta hainbat hizkuntzatan

.Euskaraz argitaratutako guztia, aldizkariak, ikus-entzunezkoak...

.Beste hizkuntzetan eta beste herriei buruzkoak: txineraz, arabieraz, alemanieraz... herri horietako ipuinak ere bai.

.Fondo gordea: XIX. mende amaieratik orain arteko liburuak, deskatalogatuak, formatu delikatua dutenak...

.Asun Balzola dohaintza: ilustrazio originalak, (1000tik gora), dokumentazio profesionala, eta baita bere liburuak edo kolektiboak ere

.Dokumentazio-gunea: ikertzaileentzat...

2.-Katalogazioa

.Gaikako bilaketa egiteko, katalogazioa beharrezkoa da
<http://katalogoa.donostiakultura.com>

.Datuak: gaia, adina, egilea, ilustratzailea, itzultzailea...

3. Haurtxoteka

.0-5 urteko haurrentzat

.Helburua: txikitatik liburuarekin harremanetan jartzea, gurasoei garrantzia emanda

.Ez dago liburuzainik: gurasoekin etorri behar dute, lotura afektiboa sortzeko literaturaren inguruan

.Funtsak: adin, material eta helburu desberdinetarako.

4.Jarduerak:

.ikastaroak J. C. Alonso ikastaroarekin (HL psikologiaren ikuspegitik, gurasoei zuzenduta)

.Irakurri baino lehen irakurtzen:

.Bularretik Mintzora: 2010-2011 ikastaroan martxan jarriko da.

.Beste jarduera asko: ipuinaren ordua, bisita didaktikoak, liburu erakusketa, irakurketa gidak, berrikuntzen zerrendak, egun seinalatuen ospakizuna, ikastaroak

5. Dokumentaziogunea:

.30.000 dokumentu inguru osotara

.Helduei zuzendutako materiala

.Funtsa beste funtsetatik elikatzen da (fondo gordeak,)... Monografiak, aldizkariak, dossierrak, irakurketa gidak

.Funtsak: euskal haur literatura eta haur liburutegiei buruzkoa / Mariasun Landa

.Zerbitzuak: informazio eta laguntza, irakurketa, mailegua, internet, fotokopiak

.Elkarlana: eskola-liburutegiekin harremanetan lanean

.Eskola-liburuzainei formazioa emateko asmoz abiatu zen

.Orain, beraien esperientziatik ere elikatu

.Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana: udal libutegietako arduradunei eskainitako ikastaroak

.Kasu praktikoak: irakasleentzako zerbitzuak eta laguntza

.Irakurketa eskolatik ateratzeko modua da liburutegia

.Amuak, gonbitea eskaini liburutegiko zerbitzuak: ikus-entzunezkoak, adibidez.

.Liburutegiaren antolakuntza zerbitzua:

.Gipuzkoako eskola liburutegiak osatzeko laguntza

.Bloga

.Zuhaizti Eskolako liburutegia erakusten da adibide gisa: Udalak diru-laguntzak ematen ditu eskolak

.*Directorio Bibliotecas escolares* (Fundación Sánchez Ruipérez): eskola-liburutegien bilatzailea, herrialdeka.

.Haur literaturatik abiatuta, gai bat lantzeko laguntza.

.Gaika bilatu

.Monografiak, artikulak, irakurketa gidak (egin eta beste erakundeek egindakoak jaso)

.Gelarako liburuak aukeratu: eskolarako/liburutegirako/etxerako zer liburu eskuratu?

.Donostiako Udal Liburutegien sarea

.Galtzagorri : ezinbestekoak, argitaratu berriak...

.Mondragon Unibertsitateak egindako gida

.Fundación Sánchez Ruipérez-en gidak eta liburuak

.*Banco del Libro de Venezuela* eta *Fundalectura*.

.Hainbat gai eta baliabide: psikologia/literatura, liburuak baloratzeko irizpideak, HGLren historia, literatura lantzeko gidak...

.Liburutegiak eta haur liburuak ikasleengana gerturatu gelatik kanpo

.Umeak: bisitak egin

.Gazteak: magisteritzako ikasleak, batxilergoak...

.Irakurketa eta Haur literatura: aldizkarien aurkibidea: aldizkari guztietako indizeak